

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2018KO EKAINA


Euskal AEko jarduera industrial %4,7 igo zen 2018ko ekainean

Industria-produkzioaren indizean %2,9ko hazkunde metatua dago 2018ko lehen sei hilekoan

Euskal AEko industria-produkzioa 2018ko ekainean %4,7 igo zen 2017ko hil beraren aldean, lan-egutegiko termino homogeneoetan, Eustatek eginiko datuen arabera. 2018ko lehendabiziko sei hilabeteetako balantzea itxi da %2,9ko hazkundearekin, 2017ko aldi beraren aldean.

Aurreko hilarekin konparatua, 2018ko maiatzarekin, Euskal AEko industria-produkzioa %1,1 igo zen, urtaroko eraginak behin zuzendurik.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko ekaineko indizearen bilakaerak, 2017ko ekainaren aldean, zeinu ezberdineko emaitzak ditu sektore industrial handietan. *Ekipo-ondasunak* %7,2 hazi dira eta *Bitarteko ondasunak* %4,1, baina *Energia* %1,0 txikitu da. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %4,3 hazi dira. Haien barnean, *Ez-iraunkorrak* dira hazkundera markatzen dutenak, %9,0 hazi baitira eta, aldiz, *Iraunkorrak* %7,7 jaitsi.

Hil arteko aldakuntzak ere, 2018ko maiatzetik 2018ko ekainera, zeinu ezberdineko bilakaerak ditu sektore industrial handietan. Halatan, *Bitarteko ondasunak* %1,4 hazi dira eta *Energia* %0,8, baina *Ekipo-ondasunak* %0,2 jaitsi. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, %2,3 hazi dira, zeren *Ez-iraunkorrak* %3,4 igo diren eta *Iraunkorrak* %0,7 jaitsi.

Euskal AEko industriako pisurik handieneko sektoreen artean, gehien hazi direnak 2018ko ekainean, urte artean, hauexek dira: *Elikadura-industriak*, *edariak eta tabakoa* (%9,8), *Garraio-materiala* (%8,3) eta *Makineria eta ekipoa* (%5,6).

Kontrako norabidean, sektore hauetan jaitsierak daude: *Zura, papera eta arte grafikoak* (-%1,6) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurrana* (-%1,4).

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	5,2
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrana	-1,4
09 - Kautxua eta plastikoak	5,2
13 - Makineria eta tresneria	5,6
14 - Garraio-materiala	8,3
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	9,8
12 - Material eta tresneria elektrikoa	5,5
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeka, industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera ekainean positiboa da Gipuzkoan, non %9,6 gehitu den, eta Araban, non %6,5ekoa izan den gehikuntza, baina Bizkaian %0,8ko jaitsiera izan da.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Ekaina

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Eka2018 / Eka2017	A(Eka2018) / A(Eka2017)(*)	Eka2018 / Mai2018	Mai2018 / Api2018
Indize orokorra				
Euskal AE	4,7	2,9	1,1	1,7
Araba/Álava	6,5	3,0	2,3	2,1
Bizkaia	-0,8	-1,8	0,4	0,6
Gipuzkoa	9,6	7,8	1,2	2,6
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	4,3	-0,8	2,3	1,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-7,7	-4,6	-0,7	-0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	9,0	0,8	3,4	2,0
Ekipo-ondasunak	7,2	6,0	-0,2	2,0
Bitarteko ondasunak	4,1	1,7	1,4	1,9
Energia	-1,0	2,5	0,8	-0,5

(*) 2018ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62